

## BALIOZKO PROPOSAMENA

Atal honetan gure aplikazioak eskainiko duena zehaztuko dugu. Guk proposatzen duguna erosketak egiterako orduan ahalik eta gutxien gastatzen lagunduko digun APP bat da. Horretarako, EAEko herri handietako, hau da, gutxi gorabehera 10.000 biztanle baina gehiago dituzten herrietako supermerkatuek dituzten eskaintzak bildu eta APPan txertatuko ditugu. Gure helburu nagusia bezeroei lana erraztea da eta haien asteroko erosketetan hainbeste ez gastatzea ahalbidetzea, kontuan dugulako azkenaldian inflazioarekin zaila bihurtzen ari dela hilaren amaierara iristea.

Merkatua aztertzerakoan ohartu ginen antzerako APPak badaudela jada, esaterako, Tiendeo, Onprice, Soysuper eta FindItApp. Hala ere, guk zerbait berritzailea eskainiko dugu, aurrekoetan supermerkatuen arteko prezioak konparatu ditzakezu eta merkeenarekin geratu "saski" elektronikoa bat sortuz, guk hau ere eskainiko dugu, baina horrez gain beste aukera bat emango dugu gure aplikazioan. APP honek erosketaren zerrenda guztia batera bilatuz erosketaren osoa merkeen ataratu den supermerkatua identifikatzeko aukera emango digu. Bilatzailean zerrenda idatziz gero eguneko eskaintzak kontuan hartuta aplikazioak berak esango digu non ordaindu beharko dugun gutxien produktu berdinentzat.

Guztiz dohainik izango da, familiek aurrezteko aukera izateko helburuarekin sortuta dagoenez ordainpeko aplikazio bat sortzea ez zaigulako etikoa iruditzen. Oso eskuragarria izango da, edozein pertsonak mugikor bat edukiz gero jeitsi dezakeelako.

Bestalde, sinplea eta oso erabilerraza izango da teknologia berriak kontrolatzeko zailtasunak dituztenentzako. Bertako atalen funtzioa ulerterraza izango da arazoak saihesteko.

Gainera, eleanitza izango da, lau hizkuntzatan eskuragarri egongo baita. Frantsesa, Ingelesa, Gaztelera eta Euskara izango dira eskainiko ditugun hizkuntzak. Ahalik eta pertsona gehienengana iritsi nahi dugu, eta ez dugu nahi hizkuntza eragozpena izatea.

Horrez gain, gure aplikazioak gure kokapenarekiko hiru kilometroko erreadioan funtzionatuko du, alegia, gure kokapenetik gehienez hiru kilometrotara dauden supermerkatuak hartuko ditu kontuan soilik. Honek arrazoi nabarmen bat du, edozein motatako ibilgailuren bat erabiltzea ekidin nahi da kostu bat suposatzea dezakeelako, bai erregaia ordaintzeak bai garraio publikoa hartzeak. Bestalde, modu honek erosotasuna handiagotzen du, urrun joan beharrik ez dugulako.


Hurrengo lerroetan, aurretik azaldutako ezaugarriak aplikazioan bertan nola ikusiko diren adieraziko dugu.

APPa irekitzerakoan hasierako pantaila azalduko zaigu, lehen begiradan eguneko eskaintza esanguratsuenak ikusiko ditugu, hau da, ikuspuntu objetibo batetik begiratu egun horretan dauden eskaintza aipagarrienak. Dena dela, beste atal batzuk ere izango ditu.

Pantailaren goialdean bilatzailea egongo da, honek bi funtzio esanguratsu izango ditu, gure nahiaren arabera erabili ditzazkegunak. Lehenik eta behin, erosketa espezifikoa bat egin nahi badugu bertan banaka gure gustoko produktuak bilatuko ditugu. Produktu bat bilatzerakoan denda bakoitzeko merkeena aterako zaigu, horrela gure kabuz konparaketa egingo dugu eta bakoitzaren irizpidean oinarrituta aukeratu dugu. Prozesu hau independentea eta motela da horregatik bigarren funtzio bat izango du, bilatzailean puntuka gure erosketa zerrenda idatziko dugu, aplikazioak zuzenean datu guztiak kontuan hartuta egun horretan gure erosketa merkeen aterako zaigun supermerkatua adieraziko digu. Hala ere beste supermerkatuetan lortuko genuen prezioa ere erakutsiko digu.



Honen eskubialdean saskia aurkituko dugu, jarraian azaltzen den irudiarekin identifikatuko dugu, bertan klik eginez, guk aurretik aukeratutako produktu guztiak azalduko zaizkigu. Erosketa zerrenda bat egin baldin badugu bertan txertatuko zaigu, produktu guztien informazio zehatzarekin. Honek gero dendan gaudenean lana erraztuko digu, erosi beharreko dena zerrendatuta izango dugulako.



Bilatzailearen ezker aldean aldiz beste botoi bat izango dugu, hiru marrazkoen irudiarekin identifikatuko dugu, hemen klikatutakoan guk eskaintzen ditugun supermerkatu guztien zerrenda egongo da, hauek BM, Eroski, Dia, Coviran, Spar, Mercadona, LIDL eta Alcampo izango dira, denda hauek aukeratu ditugu gure inguruan ezagunenak eta ugariak direlako. Horietako batean klikatzerakoan supermerkatu honi buruzko informazio apur bat egongo da ikusgai. Gainera, eguneko supermerkatu horretako eskaintza bereziak ere begiratu ahal izango ditugu. Azkenik, behar jarraituz, iruzkinak uzteko eta beste bezeroenak irakurtzeko aukera egongo da, aplikazioaren programazioa hobetzeko oso erabilgarria izan daitekeela uste dugulako.

Mugikorraren azpiko aldean hiru botoi aurkituko ditugu, eskubitik hasita lehenengoa gure perfilari dagokiona izango da. Hau sakonduz gero, gure datu pertsonalak azalduko zaizkigu, izen-abizenak, hizkuntza eta gure kokapena, azkeneko hau oso garrantzitsua izango da, lehen esan bezala aplikazioak gure kokapenetik hiru kilometroko erradioan dauden supermerkatuak bakarrik hartzen baititu kontuan, ibilgailuen beharrik ez egoteko eta horrela esperientzia erosoagoa izateko. Aplikazioa erabiltzen ari garen momenturo kokapena aztertua izango da, beste herriren batera joaten bagara era berdinean funtzionatzen jarraitzeko. Garrantzitsua da aipatzea aplikazioari gure kokapena kontrolatzeko baimena eman beharko diogula gure mugikorreko ezarpenetan, hala ere, ideiaz aldatuz gero aukeraketa hori aldatzeko aukera izango dugu edozein momentutan. Baimena izandakoan gure kokapen-konfigurazio sistema aurrera eramateko aukera izango dugu. Honela funtzionatuko du: erabiltzaileak erregistratzean haren kokapen datuak eman beharko ditu, horrela erabiltzailearen APPan agertuko diren eskaintzak 3km-ko erradioaren barruan dauden supermerkatuenak izango dira. Aipatu dugun bezala eleanitza izango da beraz sekzio honetan guk nahi dugun hizkuntza hautatzeko aukera izango dugu.



Erdian dagoen botoia hasierako pantailari dagokiona izango da, APPa irekitzen dugun momentuan hemen kokatuko da. Beste atalen batean sartzen bagara botoi hau klikatuta hasierara bueltatuko gara zuzenean.



Azkenik, ezkerretik hasita lehenengo botoia liburutegia izango da. Bertan gure erregistro guztia gordeko da, aplikazioan izan ditugun mugimendu guztiak. Dataren arabera ordenatuko dira. Aurretik ikusi dugun eskaintzak azalduko dira bakoitzari dagokion informazioarekin batera, zerbait gogoraratu nahi dugunean erabiliko dugu botoi hau, eskaintza zehazki oroitzen ez dugunean. Horrez gain, gure supermerkatu gogokoenak markatzeko aukera izango dugu, hauetako batean sartzen zarenean lehen aipatu dugun hiru marratxo batoiean klikatuz bihotz baten irudia edukiko dugu ondoan. Hor sakatutakoan zuzenean liburutegian gordeko da, bere barruan egongo den “gustokoak” atalean.



Jada zeaztu ditugu gure APPak izango dituen ezaugarriak, besteengandik desberdinduko duena zer izango den. Azken finean, proiektuaren helburua berritzailea den aplikazio bat sortzea da, aurretik aipatutako egoera modu eraginkorrean hobetzea gustatuko litzaigukelako.